


HANDIA ZARA SAKANANA





ALTSASU

"Guaixerekin ibarraren errepasoa egiten da"

YOLI ETA BALIKO PELLO ETA IÑAKI SEMEEKIN 1. GUAIXEKO EZKONTZA ETA 10. GUAIXEKO JAIOTZA

Eneida M.C. eta Maider B.G.

1 Ikusi eta pentsatzen duzu: hara, lehenengo Guaixean azaldu ginen, 1994.ean ezkondu ginenean, eta 10. Guaixean, 1995. urtean, Pello semea jaio zenean. Oroitzapen oso ona da.


2 Ezkontzen, jaiotzen eta heriotzen atala goitik behera begiratzen genituen. Denak adi egoten ginen: hara, hau azaldu da! Garaian asko komentatzen zen (kar-kar). Guaixen atera ginela gogoan dugu, baina bereziki semeen jaiotza. Pellok, aldiz, ez zuen gogoratzen atera zenik.

3 Xenda argazki denda genuen, eta hasieratik Guaixen publizitatea jartzen genuen. Hilero publizitatea berritzen genuen; ezkonberrien argazkiak jartzen genituen, polita zen. Jen-deak asko aipatzen zituen. Guaixen

herrietako albisteak eta argazkiak begiratzen genituen, nor ezkondu zen, nor jaio zen, zorion-agurrak... garaiko txutxumutxuak. Ibarraren errepasoa egiten genuen Guaixerekin. Euskaldunendako ona zen, eta euskara ez genekienok, irudiak ikusi eta gainontzekoa galdetzen genuen.

4 Denda zela eta agian aterako ginen, edo agian ikastolari buruzko albist-eren edo argazkiren batean.

5 Etorkizunaz hitz egitea zaila da, baina oxala Guaixek etorkizun opa-roa izatea. Guaixe ongi ikusten dugu. Papera beti bertan gelditzen da. Semeek gehiago digitalean irakurtzen dute, baina, hala ere, paperezkoak jarraitzea gustatuko litzaieke. Guaixek jarrai dezala, hori da opa dioguna.



IRURTZUN

"Etorkizunean Guaixek jarraitu behar du"

BLANCA ILUNDAIN, AIZPEA EUSKARA TALDEA 10. ALEAN EUSKARAREN TXOKOAN

Eneida M.C. eta Maider B.G.

1 Burura dakarkidan lehenena nostalgia pixka bat da, baina harrotasunez jantzitakoa. Euskararen Txokoko argazki horretan Irurtzungo euskaltzale kopuru handia elkartzea lortu genuen. Gaur egun nik uste ez genukeela hainbeste jende batuko. Nostalgia aipatu dut, argazkian utzi gaituzten lagun asko daudelako, eta orainaren eta iraganaren aldea erakusten duelako: lehen nola ginen, eta gaur nola garen. Oroitzen naiz argazki horrekin egutegi bat egin genuela Aizpean, koloretakoa, oso polita. Etxean oraindik gordea dugu argazki hori.

2 Aizpea gisa askotan agertu izan gara Guaixen. Bi urte ingurutan hilero kolaborazioa bidaltzen genuen, Irurtzungo berriemaileak ginelako. Manolo Morenok, Amaia Albizuk, Mikel Goldarazena eta nik neuk idatzi izan genuen.

3 Eskualdean euskaraz paperez egina dagoen komunikabide bakarra da Guaixe. Beharrezkoa da, gertukoa da, eta garai bakoitzean gure herrietan gertatzen dena kontatzen du. Pentsatzen dut euskararen garapeneko ikur bat dela eskualdean. Irratia eta webgunea badaude, baina komunikabideak paperean egon behar dira.

4 Aurten festen hasierako txupinazoa piztea dagokidanez, berriro agertuko naiz (kar-kar). Aizpea ere askotan agertu da.

5 Ez dakit, ziur aski ez dut garapen guztia ezagutuko, baina nik uste etorkizunean Guaixek jarraitu egin behar duela. Sakanan sortzen diren gertakariak, iritziak... ez dira hain puntualki beste komunikabideetan euskaraz agertzen. Egun ia dena digitala da, eta ematen du berriak eta iritziak hartu eta bota egiten ditugula; paperean, berrikus ditzakegu, hor gelditzen dira. Helduon etxeetara, gurasoon etxeetara ailegatzen da Guaixe. Argazkian zeuden ume txiki horiek gaur egun 30 urte pasatxo dituzte, eta ez dute hartzen; gurasoen etxean dago Guaixe, ez haien etxeetan. Etorkizunean euren etxeetan egotea lortzera joan behar-ko da. Formula interesgarria da Guaixe: lokala, euskara batua eta euskalkia.



ALTSASU

"Sentsazioa daukat geroz eta indar gehiago duela"

AITZIBER FERNANDEZ LEHENENGO ZENBAKIAN JAIOTZA

Erkuden Ruiz Barroso

1 Pentsatu dudan lehenengo gauza izan da nire kintako lau jarraian garela, eta oso polita dela Guaixen ikustea. Burura etortzen zait ideia ona zela Sakanako jaiotzak jakiteko. Esa-mesa hutsa da, hori bai.

2 Ez, ideiarik ez; ez dakit nire gura-soek ere jakingo duten hor atera nintzenik. Jaiotzak jasotzeko deitu behar zuten? Ez nuen funtzionamendua ezagutzen, egia esan (erredakzioko kideek udaletara deitzen zuten).

3 Sakanako gauzak ezagutzeko eta, batez ere, orain uda datorrela, festak eta Sakanan egiten diren gauzak ezagutzeko. Bestela, Sakana oso luzea da eta, alde batetik bestera egiten diren gauza

guztietaz seguruenik ez ginen enteratuko. Orduan, etxekoa bezala iruditzen zait.

4 Ez naiz akordatzen. Seguruenik dantzako zerbaitetan atera naiz, bai; ez dakit. Agian urtebetetzeren batean ere; gogoratzen naiz lagun-urtebetetzetan Guaixeko bulegora etortzen ginela argazkiekin zorion agurra jartzera. Argazkia entregatzera espreski etortzen ginen.

5 Sentsazioa daukat geroz eta indar gehiago duela. Ez dakit nire sentsazioa den, baina, bai, geroz eta indar gehiago duela eta agian herrian zabalduago bezala dagoela. Eta beharrezkoa dela ere. Hemen egiten diren gauzak ezagutarazteko; bestela, hor gelditzen dira.



HIRIBERRI ARAKIL

"Komunitatearen berri izateko egiten jarraitu beharra dago"

ANGEL MARIA VILLAR PELEGRIN 100. GUAIXEKO JAIOTZETAN ATERA ZEN

Alfredo Alvaro Igoa

1 Sakanako haur pila baten jaiotza batera ikustea, polita da. Baina zerrendakoak ez ditut ezagutzen.

2 Ez nuen ikusia. Ez zidaten ezer esan.

3 Iruñea eta Hiriberri Arakil artean nabil. Guaixek nire ingurua, bizi garen ibar eder hori, ikusteko aukera ematen dit. Gertu gertatzen dena ezagutzea gustatzen zait. Trebatzen ari diren gazteak nola dabil-tzan jakin. Kirola, pilota, begiratzen dut. Herrietako festak. Egiten diren tailerrak. Batzuetan bistaz ezagutzen duzun jendea ikusten duzu eta: “begira zertan dabilen!” Astekaria etxean jasotzen dugu eta hura begiratzen dut, amonarekin. Hari asko gustatzen zaio. Arbizun lehengusuak ditut eta amonak esaten dit: “begira, zure lehengusua

Guaixen atera da!” Paperezko prentsarako zaletasuna amonarengandik datorkit.

4 Uste dut baietz, Xotako jokalaria nintzenean. Taldearen maila guztietatik pasa nintzen eta lehen taldearekin entrenatzen luze egon nintzen. Ez nuen jokatu. Taldeak aurrera jarraitu beharra du orain. Ea nola egiten duen.

5 Proiektu oso polita da. Eskertu beharra dago. Komunitatearen berri izateko, egiten jarraitu beharra dago. Garbi dago etorkizunean mugikorraren, webguneren bidez gehiago kontsultatuko dela. Baina papera ere polita da. Norbait ateratzen denean argazkiak moztu eta gorde ditzakezu. Hori polita da. Hala egiten dut. Amonak ni prentsan ateratzen nintzeneko bilduma egina du.

1. Zer datorkizu argazkia ikusita?
2. Guaixen atera zinela bazenekien. Zerbait esan zizuten? Noizbait zerbait esan dizute?
3. Zer suposatu du Guaixek zuretzat.
4. Ondoren noizbait gehiago Guaixen atera zara? Zergatik?
5. Nola ikusten duzu Guaixe etorkizunean?



URDIAIN

"Guaixe guretako herriko informazioa da, beste modu batean ez duguna, eta euskaraz"

FRANCIS IRIGOIEN OSTIZA

100. GUAIXEKO INKESTA ERANTZUN ZUEN

Maider Betelu Ganboa

1 Zenbat denbora pasatu den (kar-
kar), eta zein gaztea nengoen.

2 Ez ba, ez nintzen gogoratzen. Arra-
so ahaztuta. Ziur momentu hartan
etxeok zerbait esango zidatela, baina
gogoratu, ez.

3 Guaixe gauza ona da, Sakanako
berriak ematen dituen astekaria,
Sakanako kontuak, Sakanan pasatzen
diren gauzak, ekitaldiak, programa-
zioak... kontatzen dituen, eta, gainera,
euskaraz. Guaixe sortu zenean, hasie-
ran zaila eta arraroa egiten zen eus-
karaz irakurtzea, guk ez genuelako
euskaraz leitzeko ohitura, baina gaur
egun Guaixe ez bada etortzen faltan
botatzen dugu.

4 Gure Eskuko festa eta bozketa egu-
na zela eta, taldetxo batek itxajua
bota genuen Urdiainen, eta horregatik
Guaixen atera ginen. Izan daiteke gehia-
gotan ateratzea ere, baina ez dut gogo-
ratzen. Bestalde, Guaixen atera izan

dira nik bidalitako argazkiak. Niri
argazkiak ateratzea horrenbeste gus-
tutzen zaidanez, tarteka bidaltzen ditut.
Mamoxarroen pare bat Guaixeko aza-
la izan ziren.

5 Ondo ikusten dut. Teknologikoki
aurrerapen asko eta azkarrak egon
dira, orain ia dena digitalean dago, eta
ikusten dut horretan ere Guaixen au-
rrerapenak egon direla: webgunea du,
irratia, paperezkoa. Beraz, Guaixek
segitzeko etorkizuna duela ikusten dut.
Nik jarraitu dezala nahi dut, guretako
herriko informazioa delako, gertuko
gauzak, beste modu batean ez duguna.
Urdiaingo gauza gehiago lantzea eska-
tuko nuke. Badirudi soilik herri han-
dietako albiste handiak direla garran-
tzitsuak, baina ez, gauza txikiek bere
interesa dute, eta gauza horiek jakina-
razi behar dira. Guaixek segi dezala,
zeren denoi –niri, familiari, amari...–
Guaixe begiratzea gustatzen zaie. Segi
dezala.



ETXARRI ARANATZ

"Euskaraz egiten den zerbait da, eta gustura irakurtzen dena"

UNAI ARTIEDA 100. ZENBAKIKO BERTSOA

Erkuden Ruiz Barroso

1 Ez dakit, gazte garaikoa... Ez dut
gogoratzen noiz egin nuen bertso
hau, baina irakurrita suposatzen dut
proposatu zidatela bertsolaritzaren
inguruko bertsoaren bat egitea; jende
berria animatzeko eta bertsolaritza
modu positibo batetik ikusteko. Pen-
tsatzen dut jende berria bertso eskola-
ra animatzeko bertso bat izango zela.

2 Bertso honekin atera nintzela, egia
esan, ez. Bestela, beste txapelketaren
batekin badakit klaseko batekin, Mar-
kelekin, atera ginela bere garaian. Bai-
na bertso hau, ez nekien.

3 Egia esan, astero buelta bat ematen
diot. Ostegunetan iristen da etxera

eta buelta bat ematen diot. Inguruko
berriak jasotzeko erraminta polita da.
Euskaraz egiten den zerbait, eta gustu-
ra irakurtzen dena.

4 Bai, gehiagotan bai atera naiz. Nik
uste gehienetan bertsoaren inguruan
izan dela; pilotan ere aritu nintzen
baina oso ona ez nintzen, eta beste
ere bai Triku Traileko lasterketan ate-
ra nintzen azkenekoan, baina nahiko
posizio txarrean, atzean, geratu nintzen.

5 Ongi ikusten dut. Bailaran behar
da horrelako astekari bat zer ger-
tatzen den jakiteko. Askotan ere agen-
dari buelta bat ematen diot. Orduan,
modu positiboan ikusten dut; uste dut
interesgarria dela bailarendako.

ALTSASU

"Etorkizuna inkognita hutsa da"

RAFA BLANCO ARBE, 'RAF ATXURI' 100. GUAIXEKO KOLABORATZAILEA

Maider Betelu Ganboa

1 Ez nuen zehazki kolaborazio hori
gogoratzen, baina idatzitako gaiaren
testuingurua oso gogoan dut. Euskaldunon
Egunkariaren itxierak hautsak astindu
zituen, Alberto Barandiaran bertan lanean
zebilan, egun haietako zurrumbiloa, Do-
nostiako manifestaldia... Egunkaria sor-
tu eta lau urtera jaio zen Guaixe, eta
guretako Egunkaria erreferentea zen.
Une horiek datozkit burura.

2 Orain bezala, gutxik esango zidaten
zerbait, baina beti izaten ziren zen-
baitzuk zerbait esaten zutenak. Tarteka,
"bai, irakurtzen ditut zure idazkiak!".
Halakoak. 2007tik aurrera, Astekoa
izeneko atalean, Raf Atxuri izenarekin
sinatzen hasi nintzen. Lakuntzako Mer-

cedes Lazkano zenak jarri zidan ezize-
na, "zu Rafa Txuri zara" esaten zidan.
Raf eta Atxuri, horrela moztuta, hori
da nire bigarren izena eta oraingoa
Guaixeko nire kolaborazioetan.

3 Ba pentsa! 1000. zenbakia eta 32 urte
hor nonbait. Gauza izugarri bat.
Gainera oso sorkari dinamikoa izan
zuen. Hasieran hilabeteen behin ateraz-
ten zen, eta gero begira nolako ebolu-
zioa izan duen. Niretako ekoizpen izu-
garria da, Sakana kontatzen duena,
Sakana osatzen eta egiten duena Aiz-
korbetik Ziordiraino. Espero dezagun
Sakana osatzen eta aberasten segituko
duela, eta, gainera, euskaraz.

4 Dozenaka alditan, hasieratik kola-
boratzaile bainaiz. Sakanako hainbat



hitz ezartzen saiatzen naiz, baina, finean,
Axularren eredia beti hor dago.

5 Ba hori inkognita bat da. 32 urte
hauetan izan duen eboluzioa eta
bidea 10 urte lehenago ez genuen espero.
Guaixe non zegoen, orain non dagoen,
gizartea bera nola aldatu den eta tekno-
logiak. Horren aurrean ezin dut etorki-

zuneko Guaixe irudikatu. Egun bagaude
batzuek nahiko analogikoak garenak,
edo analogikoa eta digitala nahasten
ditugunak, eta badago beste belaunaldi
bat guztiz digitala dena. Horren arabera,
izango da, ez? Teknologiekin eta Adimen
Artifizialarekin sortuko diren erronka
berriak daude, baina ez dakit irudikatzen.
Hemendik 10 urtera ez dakit nola izango
den: paperak segituko duen, segitzen
badu zein funtzio izango duen, edo gehie-
na pantailetan barrena jasoko dugun...
Sortu zenean ere handik 5 urtera edo
10 urtera izango zena ere inork ez ze-
kien, ezta? Dena ezin da programatu.
Hemendik urte batera edo bira, bai,
baina hortik aurrerakoa... Erronka
berriak aurreikustea zaila da, baina
espero dezagun Guaixek gizartean se-
gituko duela, garaian garaiko beharrak
asetzen eta Sakana kontatzen, beti ere.
Eta euskaraz, zalantzarik gabe. Jarrai-
ki grinan eta ahaleginean!



ENERGIA
BERRIZTAGARRIAK



INSTALAZIOAK ETA
MANTENUA



INGENIARITZA
INDUSTRIALA



ROBOTIKA ETA
AUTOMATIZAZIOA



www.eseki.com

"Magia da"

AMAIA AMILIBIA SALGADO, IUNE TRECET OBESO ETA LAURA OLMOS ARISTORENA
GUAIXEKO DISEINATZAILEAK



1994ko abenduan kaleratu zen Guaixe aldizkariaren 1 zenbakia. Azal horretan sakandarrak identifikatzen dituen Beriain mendia agertzen da, Aralar, eta bailara hodeiez estalita. Gaur, uztailak 10, 1000. Guaixe astekaria kaleratu da. Tartean aldizkariaren diseinu, maketa eta eredu desberdinak izan dira, eta lan horretan Amaia Amilibia Salgado Guaixeren sortzailetako bat eta lehenengo diseinatzailea, Iune Trecet Obeso gaur egungo Guaixeko maketatzaile eta diseinatzailea eta Laura Olmos Aristorena GK zerbitzuko diseinatzailea izan dira. Hirurak GUAIXE IRRATIAN izan dira Eneida Carreño Mundiñano esatariarekin solasean.

Lehenengo azala ikusita, zer datorkizu burura?

AMAIA. Azala lehenengo Guaixe horren azkeneko kontua izan zela uste dut. Hasi ginen barruko guztia prestatzen. Guaixe sortu bazen eskualdeko jendea inplikatu zelako izan zen. Hiru ikasle egon ginen jendea zirikatzen. Hain zuzen ere, ez genekien zer jarriko genuen portadan, bilera batean aipatu genuen, eta Kruz Mari Martinezek ez dakit nola esan zuen: Nik badaukat oso argazki on bat. Mesedez bidaltzeko eskatu genion eta horrela sortu zen lehenengo portada hori. Barruko guztia prest genuen; publizitate guztia diseinatuta, elkarriketak eginda, agurrak, errezeta, bertsoa... Dena prest genuen eta portada horrela sortu zen, bat-batean.

IUNE. Askotan sortzen zaigu arazo berdina oraindik ere. Guaixe guztia eginda eduki eta asteazken eguerdian (asteazkenetan bidaltzen da astekaria errotatibara), eta ez daukagu azalik oraindik. Lehenengo Guaixetik milagarrenera jarraitzen dugu arazo berdinarekin.

A. Gogoan dut halako anekdota bat, ez dakit zenbat urte izango diren, baina

Urdalur urtegia hustu zen eta matxura bat egon omen zelako, eta urtegi hustu hartako argazki batzuk bagenituen. Esan genuen: hau joango da portadan. Baina ez genekien zer titular jarri. Urdiaingo Mikel Galarzak, ibili zen orduan laguntzen, eta berak botatu zuen: Ez ur, ez lur. Izan zen oso portada polita ere bai. Horrela izaten dira portadak, ezustekoak.

I. Hori da. Horretan Alfredo izaten da gure sortzaile handia; titular horiek oso ondo josten ditu.

A. Portada hori ikustean, hori etortzen zait burura. Maketazioari helduta, lehenengo zenbaki hura PC batekin egin genuen. Ez Macintosh bat. Olaztiko Udalak utzi zigun lehenengo ordenagailu hori. PCrako programekin egin genuen, ez inprentarako begirako programak. Gerora Macintosh bat erosi genuen, milioi bat eta erdi pezeta kostatu zena, eta inpresora bat. Baina lehenengo diseinu horiek Pagemaker edo horrelako programaren batekin egin genuen. Ez dakizue zer izerdi. Ez genuen eskanerrik ere, eta orduan uzten genuen leiho bat, kutxa bat, hutsik eta inprentara bidaltzen genuen argazkia paperean edo diapositiban, eta inprentan eskaneatzen zuten. Guk diseinatzen genuen argazkia geldituko zen ikusi gabe. Espazio hori hutsik utzita. Ez genuen Guaixe eskuz egiten, ordenagailuan hasi ginen, baina gutxienekoarekin. Hiru lankide ginen (Aitziber Etxaiz, Olatz Irizar eta Amaia bera), eta bat aritzen zen koordinatzaile herriz herri berriemaileek idatzitako notiziak hartzera. Paper batean eskuz idatziak jasotzen genituen, eta gero bulegoan ordenagailuan pikatu, zuzendu eta abar egiten zuen. Gerora etorri ziren korreo elektronikoak.

I. Orduan, argazkiak jartzeko nola egiten zenuten?

A. DIN-A4 formatukoa zen, orduan hilaletaria zen, aldizkaria, eta orduan bagenituen lau zutabe eta azpian publizitatea. Publizitatea maketan ikusten genuen, baina argazkia zena, kutxa huts bat agertzen zen eta guk bidaltzen ge-

nuen argazki hori inprimatuta eta argazkia inprentan eskaneatzen zuten guk ez genuelako eskanerrik. Guaixe sortu zen komunikabide gisa, baina euskara eta euskararen erabilera bultzatzeko sortu zen. Orduan, garai horretan pil-pilean zeuden horrelako herri aldizkari pila bat. Oñatin Gertu deitutako inprenta bat zegoen, eta guztiok joaten ginen hara inprimatzera eta oso-oso harrera ona ematen ziguten. Gerturekin urte pila bateko harremana izan genuen, eta hango jendeak asko lagundu zigun. Asko galdetzen genien: zer gomendatzen diguzue? Zer eskaner mota? Hau nola egin dezakegu? Asko ikasten genuen inprenta harekin.

LAURA. Beraz, haiek txertatzen zituzten argazkiak maketan?

A. Behintzat hasiera hartan, bai. Gerora, poliki-poliki, ordenagailua erosi genuen, gero eskaner bat, inpresora... Gure egitekoa ere hobetzen joan zen. Anekdota gisa: Klip batekin argazkia paperean jartzen genuen, eta behin baino gehiagotan pasa izan zen argazkiz okertu eta guk nahi genuen argazkia beste orri batean jarri zutela eta horrela publikatu zela.

32 orriko aldizkari bat egin zenuten. Zenbat ordu pasa zenituzten lehenengo Guaixe hori egiteko?

A. Guaixe hori egiteko izan zen... Niri magia iruditzen zitzaidan. Kazetaritza ikasten ari ginen, eta urte haietan fakultatean eskolaz kanpoko jardueretan ordenagailuan diseinatzen erakusten ziguten. Baina bazegoen gaintitu beharreko irakasgai bat zela paperean maketatzen ciceroekin; ez milimetro ez ezer. Ikasi behar genuen paperean egiten garai batean egunkarietan egiten zen bezala; kutzak, zutabeak... Pentsa non geunden 1990ko hamarkada horretan.

Esaten ari dena irudikatzen duzue?

L. Oso zaila.

I. Esan duen bezala, magia iruditzen zait. Zerbait hain txukuna ateratzea horrelako baliabideekin.

L. Dena txuri beltzean zen?

A. Portada izan ezik. Plantxak ziren, eta hor ere sekulako eraldaketa izan dute. Gaur egun, oker ez banaiz, plantxak digitalak dira. Baina garai horretan fotolitoak erabiltzen ziren. Negatiboa, fotolitoa, gero positiboa... Errebelatu egiten zen. Fotolitoa plastiko bat zen eta gero plantxara metalean egiten zen. Inprentan ere sekulako eraldaketa egon da.

I. Eta portadan kolore bat erabiltzen zen.

A. Hori da, tinta bat.

Eskura ereduren bat izan zenuten?

A. Garai horretan sekulako mugimendua zegoen herri komunikabideetan. Euskara taldeen egitekoa zen euskara berpiztu, indartu eta gorpuztu, eta gizarte mailan onddoen moduan sortu ziren hainbat eskualdetan euskal aldizkariak. Guk ere edaten genuen, eta hor zegoen mugimenduari jarraitu genion. Orduan, alde horretatik ere laguntza handia izan genuen: Eibarko ...eta kitto!, Nafarroako

Iparraldeko Ttipi Ttapa, Goiena aldizkaria, noski... Hor baziren batzuk oso aitzindariak zirenak eta gu haien atzetik joaten ginen nola egiten zuten galdetzen. **Urte batzuk egin dituzu Guaixen. Sekulako aldaketak bizi izan zenituen, ezta?**

A. Hor ere beste pertsona bat aipatu nahiko nuke: Idoia Zufiaurre urdiain-darra. Berak lan handia egin zuen maketak prestatzen. Momentu batean, Guaixe astekaria zenean, bultzada handi bat eman zitzaionean, diseinu berri bat behar zen eta Idoia Zufiaurreren laguntza izan genuen. Berak maketatzeako ereduak sortu zituen eta bultzada handi bat izan zen Guaixeri izaera eta diseinu propioa emateko. Orduko elkarrekin sendotzeko apustua egin zuen. Gu hasi ginenean maketak sortzen genituen egin ahala; aldiro sortzen genituen. Estiloak hobetzen joan ginen. Argazkiak egiten genituen, elkarriketak, maketatzen genuen, iragarkiak saldu... Egin beharreko guztia egiten genuen, eta hori izan zen lan profesional bat kontratatu genuena eta horrekin urte batzuk eman ditugu. Azkenean, bizitzan etengabe egon behar duzu berritzen, aldatzen eta gaurkotzen. Gaur egun hori azkarrago gertatzen da, ezta?

L. Nik uste zuk aldaketa asko izan dituzula.

A. Bai, baina orain azkarrago izaten dira.

Iune, maketa horiek ezagutu zenituen?

I. Ni sartu nintzenean dagoeneko Tokikom-eko maketak erabiltzen ziren, baina hilabete batzuk martxan zeramatzaten, eta 2017an sartu nintzen. Ez dakit aurretik zeintzuk erabiltzen ziren, seguruenik horiek izango ziren.

Tokikom-koak erabiltzeak zer esan nahi du?

I. Lehenengo eta behin, aldizkaria ireki eta badakizula Guaixe dela. Aurreko maketek marra oso identifikagarria zeukaten, eta hori ikustean bazenekien Tokikom-eko hedabide baten aurrean zeundela. Orain askoz errazago da. Biltegi batera zoaz, are gehiago, erre-daktoreak biltegi batera doaz eta bertan nahi duten maketa aukeratzen dute. Maketa hori ongi dagoela badakizu, hiru zutabe dauden tokian hiru zutabe egongo direla badakizu, eta ez dute beste tipografia bat erabiliko, ezin dutelako. Horrek bizitza errazten digu.

Alderatuta, errazago duzue, beraz.

A. Imajinatzen dut beste konplikazio batzuk izango dituztela. Gaur egungo produktua ez da bakarrik papera. Multi kanal izan behar du: sareak; eta sareak esaten dugunean da webgunea, audioa, podcast... **I.** Eta etorriko den guztia; bideoak eta abar. Irudia oso garrantzitsua da. Horretan lehenengo pausuak ematen ari gara.

Erredaktoreek maketak aukeratzen eta jartzen dituzte, beraz, zein da zuen lana gaur egun?

L. Gauza horiek ere txukundu behar dira. Agian gehiegi idazten dute, edo gutxiegi, argazkia handitu behar da...



IBILGAILU MOTA GUZTIEN
KONPONKETA
BANKADAKO DIAGNOSIA
LABEKO MARGOKETA
ERROTULAZIOA

BEIREN ALDATZEA
HAGUNAK KONPONTZEA
ETXEAN EMATEA ETA JASOTZEA
KORTESIAZKO AUTOA DOAN
IBILGAILUEN GARBIKETA INTEGRALA



☎ 948 500 166 / 680 859 938

📍 Akaborro IInd Ind. • 31860 IRURTZUN

✉ chapigo@gmail.com



Laura Olmos Aristorena
GK zerbitzuko diseina-
tzailea, Amaia Amilibia
Salgado Guaixeko lehen
diseinatzailea eta lune
Trecet Obeso Guaixeko
egungo maketatzaile eta
diseinatzailea

Holakoak egiten dituztela ohartzen dira?
I. Beti eskatzen dituzte mesedetxoak. Argazki hau hemendik kenduko didazu eta bestea handitu edo txikitu... Egia da gure lana pila bat erraztu dela. Sartu nintzenetik orain arte ari naiz lan egiten gauza askotan ez direla papere-rako. Paperari begira, bizitza erraztu digute, eta orain denbora daukat beste gauzak egiteko: webgunea eta abar. Gauza bereziak prestatzeko ere, aste hauetako festen orriak gure esku gel-ditzen dira. Beraiek idazten diuzte eta guk zerotik sortzen ditugu orriak, ez direlako maketa normalak.

A. Zer programa erabiltzen duzue gaur egun?
I. InDesign. Baina Amazoneko ordena-gailu batetik lan egiten dugu.

L. Flipatu nuen esan zidatenean beste ordenagailu batetik lan egin behar nuela. Baina nola beste ordenagailu batetik?

Beraz, hasi zinetik ere aldaketak izan dira.

I. Bai. Sartu nintzenean InDesignen egiten genuen lan, eta maketak sortu ahala bulegoko zerbitzarian sartzen genituen. Orain ordenagailu birtual bat erabiltzen dugu; badakigu ordenagailu hori behintzat ez dagoela Estatu Batue-tan, European dagoela. Erredaktoreek webgune baten bidez lan egiten dute. Karratutxo batzuk dituzte eta hor idaz-ten dute. Orduan, ezin dute ez maketa ikutu ez ezer. Oso itxia da. Maketak sortzen dituenak, Goienako Iñakik,

betidanik oso argi utzi du erredaktoreek ezin dituztela maketak ikutu, ezer.

Laura, zu inprenta batetik zatoz. Aurretik Guaixe ezagutzen zenuen? Nola izan da barrutik ezagutzea?

L. Oso desberdina da. Buruan dauka-zuna eta gero errealtatea egunez egun ikusten duzu, eta ez du zerikusirik. Gauza batzuk, hasiera batean, pixka bat zailak izan ziren. Baina behin ikas-ten dituzunean martxa hartzen duzu. Gauza berri asko dira. Diseinatzailea zarenean zure ordenagailuan diseinatzen duzu eta listo. Baina aldizkari batean beste pertsona batzuekin lan egin behar duzu... Oso desberdina da.

Behin astekaria idatzita, zuzenduta eta berrikusita, nola egiten da bidalketa?

I. Iruñera bidaltzen dugu. Edizio digi-tala, sistema berria, nahiko pausu potentea izan zen. Dena lotuta dago: inprenta, webgunea... Programaren barruan edozer gauzarako botoiak daude. Botoi bati eman, PDFa sortu, automatikoki sortzen da orria eta in-prentara bidaltzen da, eta gero behin inprentan dagoela beste botoi bati eman eta guztia webgunera igotzen da. Hori bai dela magia.

Zer nolako etorkizuna ikusten diozue?

A. Lehenik eta behin zorionak milaga-rrenera iristeagatik. Gustuz eta harro-tasunez ikusten dut. Baina nolabait ere hausnarketa egin behar da ahaztu gabe dagoeneko papera ez dela lehen bezala.

Urte askoan kuttuna izan da. Astekaria eta energia guztia paperera zuzendu dugu, baina gaur egun beste momentu batean gaude. Denok daukagu telefonoa eskuan eta paperean ez dut esango bi-garren mailan, laugarren maila batean gelditzen da. Baina telefonorik gabe ez da inor etxetik ateratzen. Zerbait ger-tatzen denean telefonoa ikusi nahi dut. Nik uste derrigor horri buelta bat eman behar zaiola. Izan dadin telefonoan Guaixeren presentzia askoz ere nabar-menagoa. Ez hain artikulu luze; txikia-goak eta nola iritsi telefonotik jendea-rengana. 30 urteko jendeak Instagram erabiltzen du; orduan, kontuan izan behar dugu hori. Nire belaunaldikoak horretan jantzi behar gara. Baina Guaixe erakargarri egitea. Oso presente egon behar da. Bideoak duen garrantzia... Orain dela hamar urte utzi nuela, eta orduan hasi ginen bideo asko egiten, baina ez genuen asmatu. Etengabe al-datzen doa.

"Oso desberdina da; errealtatea egunez egun ikusten duzu, eta ez du zerikusirik"

Aldatzen doa eta horretan janztea eta azkar, gainera, eskatzen du.

I. Eta denbora guztia buru oso irekia izatea; baina errutinak jaten gaitu askotan.

A. Eta beldurra. Guaixen eta lantaldea izatean beldurra sentitu izan dut maiz. Orain Beleixe egin behar dugu, Oixe... Eta beldurra. Baina beldurra azkenean denon artean gainditzeko gauza bat da.

L. Askok ikasi behar da.

A. Ezin zaio egunkariari lehenatasuna eman; lehena izatea garrantzitsua da.

Eman nahi dena ongi eman nahi da; batzue-tan eman nahi da, baina kalitatezko zerbait eskaini nahi du Guaixek.

I. Bideogintza oso zaila da. Momentuz, argazkietan zentratzen gara; webgunea indartzen ari gara eta sare sozialak webguneko altaboz moduan erabiltzen ditugu. Nik uste hortik ondo goazela. Bideogintza bai sartu beharko genukeela, hor hankamotz gaude.

L. Edozein bideo egitea erraza da, bai-na bideo on bat egitea jendeak ikusiko duena, ez.

A. Baina azkartasuna bilatzen da ere.

L. Azkartasuna bai, baina gaur egun oso tikismikisak gara eta askotan bideo bat ikusi eta esaten dugu: Ze bideo txarra. Gauza horietan fijatzen gara.

1000 Zorion
Guaixe!

Nafarroako
dietista-nutrizionisten
elkargo ofiziala -k

GOMENDATUTAKO MARKA

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEARTEKO 13:00AK BAINO LEHEN:
Tel.: 948 56 42 75 / 661 523 245 / kultura@guaixe.eus

ASTEAZKENA 15

ETXARRI ARANATZ Festa. Ur festa goxoa: bainuak, afaria eta musika. 12 urtetik aurrera. Goza Bizi Sakanan egitasmoaren barruan.
20:00etatik aurrera, igerilekuetan.

OSTIRALA 17

OLAZTI Urteurrena. Lokura urdaiazpiko moztaila eta Monkey Man reggae eta afrohouse musikariaren emanaldia, Barandi tabernaren XI. Urteurrenean.
19:30etik aurrera, Barandin.

ZORION AGURRAK



Markel Castro Zorionak Markel!!! Laster 13 urte betekottuzu ta mutiko heldu bet einda zaude, bai ikasketetan eta bai fameli eta lagunen harremanetan. Ongi pasa guai zauden oporroitzen. Alkar ospatukodegu zuu zorion egune. Muxu asko. Zuu famelikuek

Tribiala

1. Noiz kaleratu zen Guaixe astekariaren lehenengo zenbakia?

- ☐ 1994ko abenduaren 20an
☐ 1999ko maiatzaren 7an
☐ 2003ko urriaren 18an

2. Zer esan nahi du Guaixe hitzak?

- ☐ Horrelaxe
☐ Oraintxe
☐ Goazen

3. Zein maiztasunarekin publikatzen zen hasieran?

- ☐ Hilabetero
☐ Bi astero
☐ Astero

4. Zein da bazkide kuota? (Zerga onurak alde batera utzita)

- ☐ 50 euro urtean
☐ 100 euro urtean
☐ 60 euro urtean

5. Zenbat Guaixe Kide gara?

- ☐ 1400
☐ 2000
☐ 900

6. Non zegoen lehengo egoitza?

- ☐ Altsasuko Foru plazan, 23 zenbakian
☐ Urdiaingo udaletxean
☐ Etxarri Aranazko udaletxean

7. Zeintzuk izan ziren sustatzaileak?

- ☐ Amaia Amilibia, Aitziber Etxaiz eta Olatz Irizar
☐ Alfredo Alvaro, Eneida Carreño eta Maider Betelu
☐ Amaia Amilibia, Iune Trecet eta Laura Olmos

8. Nola deitzen zen lehenengo astekaria?

- ☐ Guaixe
☐ Beleixe
☐ Oixe

9. Noiz pasa zen Guaixe astekaria izatera?

- ☐ 1999ko maiatzaren 7an
☐ 2004ko urtarrilaren 23an
☐ 2001eko ekainaren 8an

10. Zenbat langile ditu Guaixe Fundazioak?

- ☐ Hamabost
☐ Bost
☐ Bederatzi

ERKUDEN EGUNA

IGANDEA 12

09:30 Erromeria Erkuden ama birjinarekin prozesioan, elizatik ermitara.
11:00 Meza, ermitan. Ondoren, auzatea eta zortzikoak.

FESTAK

ASTEAZKENA 15

12:00 Haurrendako jokoak. Barazkigunek antolatuta, Barazkigunen.
13:00 Barazkigunearen irekiera. Barazkigunek antolatuta.
17:00 Irurtzungo festak 2026 kartelen erakusketa, udalbatza aretoan.
17:15 Kartel lehiaketaren sari banaketa, udalbatza aretoan.
18:00 Festak iragartzeko txupinazoa. Ondoren, erraldoi eta buruhandien konpartsa,

gaitari, Orritz dantza taldea eta EZK txarangaren kalejira.
20:00 Orritz dantza taldearen emanaldia, plazan.
20:45 EZK txarangarekin kalejira.
21:00 Gaitariekin dantzaldia, plazan.
21:30 Jauziak.
22:00 Larrain dantza.
22:30 Zezensuzkoa, kultur etxean hasi eta Gernika parkean amaitu.
22:45 Tximista txaranga, Gernika plazatik hasita.
00:30 Oinutsik taldea.

OSTEGUNA 16

10:00 Dianak.
11:00-12:30 Haurrendako margo lehiaketa, plazako karpan. Oharra: materiala antolatzaileek jarriko dute.
13:00 Aranburugoitiarrak Lorena Arangoa eta Xabier Artiedaren ikuskizuna, elebiz, Gernika plazan.
14:30 Herri bazkaria, Barazkigunek antolatuta, Atakondoako patioan.
17:00 Aurpegi margoketa Irurtzungo Pintura Gelaren eskutik, plazan.
17:00-19:00 Haurrendako txokolate jana (zeliakoendako

egokia), plazan.
18:30 Edalontzi originalaren lehiaketaren sari banaketa, Barazkigunek antolatuta.
19:00 Andoni Ruizekin tardeoa, Barazkigunek antolatuta.
20:00 Xaiborrekin musika emanaldia, plazan.
22:00 Larrain dantza.
22:30 Zezensuzkoa, kultur etxean hasi eta Gernika plazan amaitu.
23:00 Kontzertuak, Barazkigunek antolatuta, Barazkigunen: Txep, Atakondoa Punk School, Amaiur 22 eta DJ Timitrix.
00:30 DJ Kapitan General, plazan.

OSTIRALA 17

10:00 Dianak.
11:30 Erraldoi eta buruhandien konpartsa.
13:00 Kalderete lehiaketan izena emateko epea itxi.
14:00 Kalderete lehiaketaren epaia.
14:30 Kaldereteak. Oharrak: antolatzaileek ogia, ardoa, mahaiaik eta aulkiak jarriko dituzte; horretarako izena eman behar da uztailaren 13a baino lehen; plazako karpa ere izena eman dutenendako erreserbatuko da. Parte hartzaileei 10:00etatik aurrera mahaiaik eta aulkiak jarri eta kentzen laguntzeko eskatzen zaie.
17:30 Burrunba Elektrotxarangarekin bazkalostea, kalejira eta kale animazioa.
17:30-19:30 Zirku tailerra Levelibular taldearekin (adin guztietarako, 6 urtetik beherakoak heldu batekin), Gernika plazan.
18:00 Afizionatuen Eskuzko Pilota Jaialdia.
19:00 Karaokea, Barazkigunek antolatuta, Barazkigunen.
20:00 Oihan Vega Djarekin gaztefesta.
22:00 Larrain dantza.
22:30 Zezensuzkoa, kultur etxean hasi eta Gernika parkean amaitu.
23:45 Steampunk sua eta pirotekniako ikuskizuna, eskolako patioan hasi eta plazan amaitu.
00:00 Kontzertuak, Barazkigunek antolatuta, Barazkigunen: Zerbitzuz kanpo, Ganibet eta DJ Abertxandals.
01:00 Oihan Vega Djarekin diskofesta.

FESTAK

ASTEAZKENA 15

GAZTE EGUNA

12:00 Festen hasierako etxajua eta haurren zapi banaketa.
13:00 Auzatea, Gazte Asanbladaren eskutik.
15:00 Gazte bazkaria.
19:30 Euskal dantzak.
20:00 Auzatea, Gazte Asanbladaren eskutik.
20:30 Edu Zardoyaren kontzertua, gaztetxearen aurrean.
00:00 Kontzertuak.

OSTEGUNA 16

KARMES EGUNA

12:00 Meza nagusia.
13:00 Auzatea, jubilatuen eskutik, Anuk eta Eleneren musikaz girotuta.
18:00 Aizkora eta harri jasotzen saioa eta frogia irekia.
19:30 Dantza modernoak.
20:00 Auzatea, jubilatuen eskutik.
21:00-22:00 Olgetan erromeria.
22:00 Zezensuzkoa.

00:00-02:00 Olgetan erromeria.

OSTIRALA 17

JUBILATUEN EGUNA

GOIZEAN, kalderete prestatzea.
12:00 Jubilatuen omenezko meza.
12:30 Swing dantza saioa.

13:00 Auzatea.
15:00 Kalderete lehiaketa kuadrillaka mozorrotuta.
18:00 Turrutxiki txarangarekin kalejira.
20:00 Pancho Balbuenak girotutako auzatea.
00:00-03:00 Boletus Rumberus DJak.



Etxez etxeko errondan lizarrengotarrek egindako geldialdia. UTZITAKOIA



Maria Angelesek, Mari Carmenek eta Aliciak piztu zuten Urdiaingo etxajua.



"Etorkizun oparoa dugu jorratzeko, eta gogotsu gaude!"

GOIZEDER ANTON ITURRALDE GUAIXE FUNDAZIOKO KUDEATZAILEA

Alfredo Alvaro Igoa

Astez aste izan duzu Guaixe astekaria postontzian 2004ko ilbeltzaren 23tik. Asteroko Sakanako informazioa, euskaraz. Milagarren zenbakira iritsi gara, zu eta gu. Eta etorkizuna aurrean dugu. **Guaixe eta mila zenbakia. Aurten lotuta daude?**

Bai, erabat. Aurten kasualitate politak egokitu zaizkigu. Alde batetik, Korrikan 1.000. lekukoa hartzeko ohorea eta zortea izan genuen, eta bestetik, gure zenbaki borobil horretara iritsi gara.

Milak infinitua, neurrigabetasuna, sinbolizatzen du.

Bai eta guretako ere horixe da: ez da (hel)muga bat, abiapuntu zirrargarri bat baizik. Atzera begiratzeak egindako bidearen handitasunaz jabetzeko balio digu, eta aurrera begiratzeak, berriz, indarrez eta ilusioz betetzen gaitu. Etor-kizun oparoa dugu jorratzeko, eta gogotsu gaude!

Astekaria ostiralero izaten dugu postontzian. Paperak etorkizunik badu?

Mundu digital batean bizi garen arren, paperak badu bere lekua; astekariak presarik gabe irakurtzeko produktua izan behar du. Baina egia da publikoa aldatzen ari dela. Adin batetik aurrerako irakurleek nahiago dute papera, irakurketa lasaiaren plazeratik; gazteek, berriz, mugikorra dute informatzeko tresna nagusi. Erronka, bi mundu horiek uztartzea da.

Eta irriatiak eta webguneak?

Guaixe Irratiak Sakanari ahotsa eta soinua jartzen dizkio. Gainera, irriati konbentzionalaz harago, irratsaioak eta elkarrizketak nahieran entzuteko jasotzen dira webgunean. Horrek digitalizazioari beste dimentsio bat ematen dio: herritarrek albisteak irakurtzeaz gain, entzun ere egin ditzake nahi duenean eta nahi duen lekuan.

Gaur egun digitalizazioa ez da aukera bat, errealitate bat baizik. Gure webguneko bisiten %41,9 mugikorraren bidez heltzen da. Horrek argi erakusten digu gure irakurlea non dagoen eta edukiak nola egokitu behar ditugun. Erradiografia horretan, sare sozialak ere ez dira jada aisialdirako tresna soil bat; informazioa zabaltzeko gure eguneroko ohiko lan tresna bihurtu dira. Eta Guaixe aplikazioak ere aukera ugari eskaintzen ditu, probatu!

Albiste faltsuen garaian zer leku dugu?

Begira, gaur egun sareak albiste faltsu eta zarataz beteta daude, eta horregatik da inoiz baino garrantzitsuagoa kalitatezko informazio fidagarria izatea.



Goizeder Anton Iturralde, Guaixe fundazioako koordinatzailea eta Alfredo Alvaro Igoa, erredaktore burua

Eta hor, tokiko hedabideok sekulako papera dugu. Azken finean, jendeari bere herrikoa, hurbileko duena interesatzen baitzaio. Hori da gure indargunea: herritarren ahotsa jaso, haiek esandakoa zabaldu eta euskaraz Sakanako txoko guztietara eramatea. Txikiak gara, bai, baina gure txikitik lanean buru-belarri gabiltza

sakandarren ahotsa ozen eta argi entzun dadin. **Etorkizunerako, oinarriak daude?**

Oinarri sendoak ditugu, eta horiek izen-abizenak dituzte. Lehenik eta behin, sakandarrak; haiekin batera egiten dugu ibarra egunez egun. Esker ona adierazi nahi diet dudarik gabe gure kolaboratzaileei eta publizitatea

jartzen duten denda zein enpresei, haiek gabe Guaixe ez litzatekeelako posible izango. Erakundeen babesare hor dago: Sakanako Mankomunitatea, Euskarabidea eta, bere garaian, Eusko Jaurlaritza.

Baina, batez ere, gure bazkideak aipatu nahi ditut. Zurekin, bazkide horrekin, iritsi gara honaino. Eta, bide batez, dei egin nahi diet sakandarrei: jaiotzatik Guaixe ezagutu duten horien guztien bultzada behar dugu orain, bazkide egiteko pausoa eman dezaten.

Ez gabiltza bakarrik.

Ez, ezta gutxiago ere. Tokikom eta Nafarpresen sortzaile gisa, etengabeko hobekuntzak txertatzen gabiltza: kudeaketa eredu berriak, edizio-tresna aurreratuak eta adimen artifiziala. Horri esker, kalitatezko informazioa ikertzen dugu eta eraginkorrakoak izaten laguntzen gaitu.

365 egun euskaraz, ezta?

Halaxe da. Euskaraz informatzea ez da kapritxo bat, euskararen normalizazio prozesuan hizkuntza bera bizi-berritzeko motorra baizik. Tresna berriak geureganatzea da bidea; itzultzaile automatikoak, esaterako, ate berriak irekitzen dizkigu gure informazioa irisgarriagoa izan dadin, euskararen kalitatea beti erdigunean jarrita.

Zer dator orain?

Helburua argia da: audientzia igotzea. Ekainean 20.000 erabiltzaile inguruk webguneko 53.000 pasatxo orri ikusi zituzten... Euskarazko Sakanako informazioa jende gehiagorengana iristea nahi dugu. Hori lortzeko, etorkizuna bermatuko duen belaunaldi erreleboa ezinbestekoa da; fundazio sendo bat jaso dugu, baina orain gaur egungo gazteak (15-25 urtekoak) gure hedabideetara erakartzeko erronka dugu.

Bideak 1.001 zenbakiarekin segitzen du.

Mila eta batgarren zenbakia abiapuntu berri bat da guretako. Sakanan eta euskaraz lanean jarraitzeko gogorik ez zaigu falta, baina handiago egiteko, komunitatea zabaldu behar dugu. Sakandarren bultzada behar dugu; zatoz gurekin eta egin zaitez bazkide! Webguneko formularioa beteta, telefonoz hots eginda edo Altsasuko gure bulegora etorrita. Sakanak bere komunikazio proiektu propioa izatea erresistentzia eta askatasun keinu bat da. Orain da unea Guaixeri bultzada berri bat eman eta etorkizuna elkarrekin idazten jarraitzeko!

Coop for a better future

Guaixek etxean kontatzen du gure istorioa. **SAKANAK mundura esportatzen du.**

SAKANA group

948 576 000 · sakanacoop.com



1000 ZENBAKI

HURRENGO ISTORIOAK ZUREKIN BIZI NAHI DITUGU

 **guaixe**
komunikazio taldea



gik DISEINUA ETA
KOMUNIKAZIOA